

GAKO EKONOMIKOAK

- Merkataritza gudua, zalantza politikoak eta banku zentralen jarduna oraindik ere protagonista dira hazkunde global apalagoaren testuinguruan.
- Aurrerapen garrantzitsuak izan dira burtsa merkatu nagusietan. Amerikako burtsek azken hogeita hamar urteotako urtarril onena izan dute, eta Europako burtsetan Ibex35 nabarmendu behar dugu, 2017ko martxotik hileko igoera handiena izan baitu.
- Errenta finkoari dagokionez, Alemaniako zor publikoaren errentagarritasuna minimoen zonara itzuli da, eta kreditu diferentzialak eta arrisku prima nabarmen hobetu dira.
- FEDen tasa igoera txikiagoen aurreikuspenak dollarraren kotizazioa urte hasierako mailalara itzuli du hilaren bukaeran. Lehengaiei dagokienez, nabarmendu beharra dago petrolioaren prezioaren igoera azkarra.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

2018 amaierako zuzenketa gogorren ondoren, merkatuek lortu dute urtarrila aurrerapen garrantzitsuekin amaitzea. Banku zentralen mezuak eta Estatu Batuen eta Txinaren arteko merkataritza elkarriketen inguruko baikortasuna berpiztea izan dira urte hasiera onaren arrazoi nagusiak. Banku zentralak etorkizuneko jarduketan inguruko mezu malguagoarekin hasi dute 2019a. Lehenik eta behin, Europako Banku Zentralak urtarrilaren erdialdeko bilan aitortu zuten Euroguneko hazkunde ekonomikoa dezeleratzeko arriskua dagoela eta merkatuek espero zuten interes tasen lehen igoera 2019 amaierara atzeratuko zela, aurreko aurreikuspena kontuan hartuta, diruaren prezioaren igoera uda amaieran ezartzen zuena. Erreserba Federalak, bere aldetik, zeharo aldatu zuen haren komunikazioa. Izan ere, orain hilabete batzuk 2019an 3 tasa igoera aurreikusten baziren ere, zuhur mantenduko zela agindu zuen, eta iradoki zuen merkatuaren interesen arabera jardungo duela. Estatu Batuen eta Txinaren merkataritza gudari eta Txinak Estatu Batuekin duen merkataritza arrakala murrizteko asmo onari dagokionez, Trumpek ezarritako muga zerga batzuk kentzeko egindako proposamenek negoziazioetan aurrera egiteko aukera eman zuten. Horrela, bigarren planoan gelditu ziren Europako hazkunde ekonomikoen ahultasuna erakusten zuten datu makroekonomiko batzuk. Testuinguru horretan, Brexitak berriz ere erakartzen zuen merkatuen arreta. Urtarrilean zehar, ikusi ahal izan dugu Mayk sustatutako akordioa bozkatzean parlamentuko kideen gehiengo handiak ezezkoo eman dutela. Horrez gain, Mayk gainditu ahal izan zuen oposizio laboristaren liderak iragarritako zentsura mozioa, diferentzia txiki batez bada ere, eta, azkenean, parlamentuak hartu du prozesuaren gidaritza, eta lehen ministroari eman dio akordioa berriz negoziatzeko agindua. Azkenik, Venezuela albisteetan egon da, herrialdeko egoera politikagatik eta nazioartean izan ditzakeen ondorioengatik.

ERRENTA ALDAKORRA

Zenbait alderdi tekniko gehitu behar zaizkie merkatuak kezkatuta zituzten zalantza batzuetan, esate baterako, Brexitean eta merkataritza gudan, egindako urrats horiei, esate baterako, arrisku aktiboen balioespen erakargarria eta merkatuaren gehiegizko likidezia. Emaitza hilabete amaiera positiboa da munduko indize nagusientzat. Burtza estatubatuarek azken 30 urteotako urtarril onena amaitu zuten (Dow Jones % 7,2 igo zen, eta, S&P500, % 7,9), eta Europako indizeek ere % 5etik gorako igoerak izan zituzten; emaitza onena Milango burtsarena izan zen (% 7,6), eta, bigarrena, Ibex 35ena (% 6,1). Hain zuzen, Espainiako burtsak 2017ko martxotik izandako igoerarik handiena izan zuen. Beren aldetik, garapen bidean dauden merkatuek % 8,7 egin zuten aurrera, herrialde batzuen jokoera oso negatiboa bada ere, esaterako, Venezuelarena.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	2018ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	9.056,7	EUR	%6,05
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.159,43	EUR	%5,26
S&P-500	AEB	2.704,1	USD	%7,87
DOW JONES	AEB	24.999,67	USD	%7,17
NASDAQ 100	AEB	6.906,84	USD	%9,11
NIKKEI-225	JAPONIA	20.773,49	JPY	%3,79
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.049,93	USD	%8,71
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.028,492	EUR	%7,68

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOIA

Atlantikoaren bi aldeetan, erostetak gailendu ziren zor publikoan. Alemaniako hamar urterako tasa urteko minimoetara jaitsi zen, % 0,15era. Espainian, hamar urterako bonuari eskatutako errentagarritasuna % 1,20tik jaitsi zen, baina arrisku prima 100 oinarritzko puntuen atalasetik gora dago. Kredituari dagokionez, nabarmendu beharra dago hilabeteen sumatutako hoberako mugimendua, ikusi baitugu diferentzialak asko estutu direla.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	2018ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,31	0,00
	6 HIL.	-0,24	0,00
	12 HIL.	-0,11	0,01
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,56	0,05
	5 URTE	-0,32	0,00
	10 URTE	0,15	-0,09
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,26	-0,01
	5 URTE	0,20	-0,14
	10 URTE	1,20	-0,22

Iturria: Bloomberg

DIBISAK

2018an zehar etengabe egin duena ez bezala, interes tipoak igotzen ez jarraitzeko erabakia hartu zuen FEDek, eta hori txalotu egin dute burtsek, baina Estatu Batuetako monetaren jaitziera ekarri zuen hilaren amaieran, eta, ondorioz, euroarekiko kotizazioa urte hasierako mailalara itzuli zen. Libera, bere aldetik, % 3,18 handitu du balioa euroarekin alderatuta, hau da, 2017ko irailetik liberak moneta bakarrarekin alderatuta izan duen balio handitze handiena. Goranzko mugimendu horrek islatuko luke inbertsiogileek Erresuma Batuen eta Europar Batasunaren arteko akordiorik gabeko banaketa baten aldeko apustuak murriztu dituztela. Lehengaiei dagokienez, petrolioaren prezioa % 14,56 igo zen. LPEE eta haren ekoizle aliatuek petrolio gordinaren hornidura murrizteak eta Estatu Batuen eta Txinaren arteko merkataritza negoziazioek arrakasta izateko esperantzak kotizazioari bultzada eman zioten.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg